



elkarrekin konpostatu dugu?

3. urteko emaitzak eta ebaluazioa



LEZO ongizate iraunkorra



Lezoko Unibertsitateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Arloko Departamentua

1. PARTAIDEAK
2. KOMUNIKAZIOA
3. GERTAERA ESANGURATSUAK
4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK
5. BALORAZIOA
6. HEMENDIK AURRERAKO HOBEKUNTZAK
7. ARRETXENeko KONPOSTAGAILUAK ALDATZEKO
PROPOSAMENA
8. ZUEN IRITZIA



1. PARTAIDEAK

Auzo-konposterako gunetako partaideen bajak eta sarrera berriak kudeaturik gaur egun orotara, **72 bat familia** ari dira bere biohondakina konposta-guneetan konpostatzen (iaz baino 12 familia gutxiago).

- 👣 Andreoneko puntuan, 21 familia (3 baja).
- 👣 Aralarko puntuan, 13 familia (5 baja).
- 👣 Arretxene-Txulotxoko puntuan, 18 familia.
- 👣 Lopene (San Pedro-Pisbe-ko kideak barne) 13 familia (3 baja San Pedron)
- 👣 Altamirako puntuan, 7 familia (baja bat)

2. KOMUNIKAZIOA

- Erabiltzaileekiko komunikazioa errazteko eta konpostagailuetan antzemandako intzidentziak eta zuzenketa-beharrak modu zuzenago batean helarazteko gometxa bidezko kodea mantendu da eta behar izan denetan zintzilika




GOMENDIOAK ETA GOMETXAK / CONSEJOS Y PEGATINAS

KONPOST ONA LORTZEKO ETA ARAZO EZBERDINAK EKIDITEKO GOMENDIOAK (kiratsa, karraskarien presentzia, ...)

CONSEJOS PARA LOGRAR UN BUEN COMPOST Y EVITAR DIVERSOS PROBLEMAS (Malos olores, presencia de roedores,...)

Ondo nahastu
Mezclar bien



Zati handiak ekidin
Evitar trozos grandes



Egiturtzailea soilik behar denean erabili
Usar estructurante sólo cuando sea necesario



Komunikazioa erraztu nahian, kolorezko gometxak erabiliko ditugu

Para facilitar la comunicación utilizaremos pegatinas de colores

Materia organikoa falta. Geldi
Falta materia orgánica.



Hobeto nahastu
Mezclar mejor



Egiturtzailerik ez bota
No echar estructurante



Zati handiegia
Trozos demasiado grandes



2. KOMUNIKAZIOA

- 👣 Erabiltzaileekin telefono eta e-posta bidezko harremana mantendu izan da sorturiko intzidentzi zehatzagoen inguruan hitzegiteko.
- 👣 Erabilpen ezagatik edo erabilpen txarragatik erabiltzaileekin behin eta berriz harremanetan jarri eta egoerak hobera egin ez duen kasuetan, bidali beharreko mezuak gutun formalen bitartez helarazi dizkio udalak. Aurrez asistentzia teknikoak emailaz edo/eta telefono deiak eginez jakinarazi zaie. Aurten ez da modu honetan bazarik eman. Baja boluntarioak izan dira guztiak.
- 👣 Jarraipen bisiten egunen deialdiak emailaz jakinarazi dira eta gunean egutegi bat zintzilikatu da.



lezokonposta@gmail.com



605 757 687 (Leire)

3. GERTAERA ESANGURATSUAK

- 🌱 **ANDREONEKO GUNEA BERRANTOLATZEA (maiatza):** Azken aldian zeuden eskaerak kontuan izanik, Udalak gune hau partaide gehiagori irekitzeko asmoz, lehendik zeuden konpostagailuak handiagoengatik ordezkatzeko proposamena luzatu zien Andreoneko erabiltzaileei apirilaren 25ean ospatu zen bileran.

Aho batez onartu zen proposamena eta maiatzaren 20an, auzolanean (dozena bat pertsonaren laguntzari esker, Arretxeneko erabiltzaileak barne), 300 litrotako kutxak 700 litrora arteko biohondakinak har ditzaketen kutxengatik ordezkatzeko zituzten (10 familientzako gaitasuna izanik).



Kutxa berriak jartzeaz gain, zahar batzuk hustu eta bahetu zituzten, **kalitatezko 800 litro konpost jasoaz**. Baratze, lorontzi eta lorategian erabiltzeko pronto utzi zuten heldutako konposta.


3. GERTAERA ESANGURATSUAK

-  **SAN PEDROKO GUNEA IXTEA (ekaina):** Erabilera baxua eta batzuetan desegokia egiten ari zen urte hasieran eta uda aurretik konturatu ginen arratoiek hartu zituztela konpostagailu guztiak. Udalak gunea itxi eta erabiltzaileak Lopeneko gunera eramatea erabaki zuen. Aldaketa horren ondoren 2 baja egon ziren.



3. GERTAERA ESANGURATSUAK

- ❗ **KONPOSTAGAILUEN EZ-OHIKO HUSTUTZEA (urria):**
Udaleko lorazaintza zerbitzuarekin izandako gaizki ulertuagatik hainbat konpostagailu hustu eta desmuntatu ziren (Altamiran ezik).
- ❗ Udalak egoera honi ahalik eta azkarren erantzun zion eta lorazaintza zerbitzuak, segidan, konpostagailuak muntatu eta konpost heldurik gabe geratu ziren erabiltzaileentzako konpostez beteriko ontziak utzi zituzten gunean bertan. Aralarren ontzi hau hustu da, baino beste guneetan oraindik konpostez beterik jarraitzen dute.



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK

Aurten ere, konpostagailu gehienen egoerak hobera egiten jarraitu du eta joera hori egonkortu dela esan behar da. Hala ere, oraindik badira hobetu beharreko puntuak:

1. **Konpostagailuak oso heze** topatu izan ditugu aurten ere, baino iaz baino maiztasun baxuagoarekin. Horrelakoetan, egituratzailea erabiltzeko eskatuko diegu erabiltzaileei. Egituratzaile-horniketa egokia izan da aurten.
2. **Nahastea:** Gutxi batzuek, iaz baino gutxiago, konpostagailuko edukia oraindik **ez dute ondo nahasten**, horrek, edukiaren trinkotzea, usteltzea edo sagutxoak azaltzea ekarri du.
3. **Biohondakinaren tamaina:** Zenbait herritarrek konpostagailuan botatako biohondakinaren tamaina oso handia izan da (ogi barra erdiak, laranja osoak, etab.), konpostatzea moteldu eta oztopatuz. Aurreko kasuetan bezala, hondakin organikoen tamaina ahalik eta txikiena izan behar duela gogorarazi zaie behin eta berriro.
4. **Hondakin organikoaren ekarpenik gabe** topatu izan ditugu konpostagailu batzuk. Oraingoan udako oporraldian gertatu da batez ere. Hau da, badira izena eman, baina parte hartu ez duten familiak, eta azkenean baja eman dutenak.
5. **Sagu eta arratoiak:** Tranpen eraginez saguen presentzia jaitsi bazen ere, pozoia falta izan denean hauen presentziak nabarmen egin du gora. Honek, tranpek bere funtzioa ondo betetzen dutela adierazten digu. Hala ere, banakako batzuk agertzea normaltzat har dezakegu.
6. **Sabotajea:** Azken aldian Lopeneko gunean atzeman ditugu sabotaia-egoerak. Zabor-poltsak agertu dira hutsik zeuden konpostagailuen barruan.
7. **Guneen egoera:** hainbat gunetan belarra luzeegi, adarrak gunea oztopatzen, etab. topatu dira. Bestetik, gunetan kokatutako zaborrontziak gainezka topatu dira.

4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK




4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



5. BALORAZIOA

Izandako oztopoak izanda, 3 urte igaro ondoren, Udalak egiten duen balorazioa positiboa da:

- 🌱 Egun, **72 familia ari dira auzo-konpostean** (216 pertsona inguru, herriko biztanleen %5 ia), beraz, iazko 84 familietatik 12 familiek programa utzi dutela esan beharra dago.
- 🌱 Bestalde, gune guztien erabilera ez da berdina: **Alde Zaharreko edo Arretxeneko guneen erabilpena ia %100koa** da, baina Altamirakoan, esaterako, %50aren azpitik kokatzen da. Lopeneko gunea zerbait osatu da San Pedroko partaideekin.
- 🌱 **Alde zaharrean egon den aldaketaren balorazio orokorra positiboa** da, konpostatze-prozesua azkartu baita aurreko sistemarekin alderatuz. Hala ere hainbat gai hobetu daitezke:
 - 🌱 Hezetasun arazoekin hasi badira ere, honek hobera egin du egituratzaile gehiago erabilita.
 - 🌱 Zati handiegiak botatzeko ohitura zuten erabiltzaile batzuk eta hau zuzentzeko oharrak bidali dira.
- 🌱 Aurten konposta heldurik zuten konpostagailuetatik hustu direnak zenbatzeko ohar hauek hartu behar ditugu kontutan: **Andreoneko hustuketa** (800 litro lortu dira), **Lorazainek eginiko hustuketa** (8 konpostagailu Aralar, Arretxene eta Lopenetik) eta **erabiltzaileek bere kabuz hustu dituzten konpostagailuak 5 izan dira**. Batzuek azpitik pixkanaka ateratzen dute konposta eta ez dute guztia heldu arte itxaroten.
- 🌱 Egun, parte-hartzen duten familietako kide-kopurua kontuan izanik (72 familia, 3 pertsona familiako: 216 pertsona) eta pertsonako 0,21kg. biohondakin sortzen direla estimatuz, **urte honetan 16.500 kilo Lezon bertan konpostatzera bideratu direla esan daiteke**.

6. HEMENDIK AURRERAKO HOBEKUNTZAK

Antzemandako intzidentziak nolakoak diren ikusita, Udalak honako hobekuntza-neurriak jarri ditu abian:

- 👉 Hobarien gainean ezarritako aldaketek konpostaren gaineko ardura-mailan emaitza desiragarriarik lortu ez duela ikusita, **konpostaren ateratzea lorazaintza zerbitu berriaren bidez egitea erabaki du Udalak, betiere erabiltzaileei aurrez komunikatu eta konposta nahi dutenei beraiek ateratzeko aukera emanda**. Honek, Zabor tasaren gainean ezartzen den hobarien kasuan, aurreko egoerara itzultzea dakar, honela, auzokonposta egiten dutenei **%40ko hobaria** ezarriko zaie.
- 👉 Irailetik aurrera **hondakinen bilketa-sistema berriaren berri eman zaie** herritarrei, baina komunikazio orokorrean auzokonposta eta etxeko konpostari aipamenik egin ez zaionez, gutun bat bidali zaie herritarrei **auzokonpostaren zerbitzua bere horretan mantentzen dela gogorarazteko**.
- 👉 Udalak kimaketa-hondarrak dituenen hori da auzokonposta guneeetan erabiltzen den egituratzailea (ez dagoenetan, Sanmarko Mankomunitatetik ekartzen da)
- 👉 Konposta-prozesua **gaizki egin** dela baieztatzen den kasuetan edota konposta kutxan materia organikoaren **ekarpenik egon ez** den kasuetan, betiere auzokonposta proiektuaren jarraipen txostenetan oinarrituta, etxebizitza horiei **baja eman eta Udalak hobaria kentzea erabaki ahal izango du**.

7. ARRETXENEN KONPOSTAGAILU HANDIAK JARTZEKO PROPOSAMENA


ALDAKETAREN ARRAZOIAK

- 🌱 Arretxeneko ontziek ez dute partehartzaile askoz gehiago hartzeko tokirik.
- 🌱 Andreoneko esperientzia emaitza onak ematen ari da.
- 🌱 Konpostagailu txikietan (300 litro) prozesua nahikoa motel doa eta handietan (700 litro), berriz, konpostatze prozesua azkarragoa da: kantitate handiak jasoaz tenperatura handiagoak lortzen dira.

BALDINTZA BERRIAK


- 🌱 Ontzi bakoitza 10 partaideko taldeetan banatuko da eta konpostagailua partekatuko dute (700 litroko konposta-kutxa)
- 🌱 Konpostajearen ARDURADUN bat izendatu beharko da taldeko, konposta sortzeko prozesua kudeatzearen arduradun hartuko duena.
- 🌱 Arduraduna izango da erabiltzaile boluntario bat, eta txandatzeko aukera izango da. Boluntariorik ez badago, Udalak ausaz izendatuko du.

7. ARRETXENEN KONPOSTAGAILU HANDIAK JARTZEKO PROPOSAMENA



300 L:
1-3
familia

GUNEKO:
20-25
FAMILIA



700 L:
10
familia


GUNEKO:
40
FAMILIA

7. ARRETXENEN KONPOSTAGAILU HANDIAK JARTZEKO PROPOSAMENA

ARDURADUNAREN FUNTZIOAK

- 🌱 Udalaren eta erabiltzaileen arteko solaskide izatea
- 🌱 Aldizka konposta aireztatzea
- 🌱 Arazoren bat badago, Udalari jakinaraztea
- 🌱 Udalari egituratzailea eskatzea





Zuen iritzia jakin nahi dugu.

Mila esker eta hurren arte!

